

## 2008 URTEKO

### UDAL AURREKONTUA

Aizarnazabalgo Udal Plenoak, 2007ko azaroaren 29an onartutakoa:

Gaiordenarekin jarraituz, eta 2008 ekitaldiko Aizarnazabalgo Udalaren Aurrekontu espedientea aztertu ondoren, onarpenerako botazioa egin zen, ondorengo emaitzarekin:

- Bost boto onartzearen alde, ondorengoek emandakoak: Alkatea: Aizpea Manterola, EAE-ANV Talde Politikokoak: Onintza Unsain, Luis Mari Etxabe, Imanol Korta eta Jesus Arruti.
- Abstenitzen da, Itziar Aizpurua, EAJ-PNV Talde Politikokoa.

Botazioaren ondoren, zera erabaki zen

1. Aurrekontua onartzea, ondorengo kapitulokako laburpenarekin:

#### **GASTUAK**

<b>KAP.</b>	<b>KONTZEPTUA</b>	<b>EUROAK</b>
	<b>A) ERAGIKETA ARRUNTAK.</b>	
1	Pertsonal gastuak.	296.500
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan.	165.500
3	Finantza gastuak.	100
4	Transferentzi arruntak.	126.180
	<b>B) KAPITAL ERAGIKETAK</b>	
6	Inbertsio errealak.	904.725,45
7	Kapital transferentziak.	2.290
8	Finantz aktiboak.	600
9	Finantz pasiboak.	0
	<b>GASTUAK GUZTIRA.</b>	<b>1.495.895,45</b>

#### **DIRU SARRERAK**

<b>KAP.</b>	<b>KONTZEPTUA</b>	<b>EUROAK</b>
	<b>A) ERAGIKETA ARRUNTAK.</b>	
1	Zuzeneko zergak.	190.000
2	Zeharkako zergak.	120.000
3	Tasak eta bestelako dirusarrerak.	193.100
4	Transferentzi arruntak.	510.213,15
5	Ondare sarrerak.	6.700
	<b>B) KAPITAL ERAGIKETAK</b>	
6	Inbertsio errealen salmenta.	19.370
7	Kapital transferentziak.	142.305,60
8	Finantz aktiboak.	0
9	Finantz pasiboak.	314.206,70
	<b>DIRU SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>1.495.895,45</b>

2. Aurrekontu Orokorra burutzeko oinarriak onartzea.
3. Aurrekontua jendaurrean erakustea hamabost lan egunetako epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarkien oholean iragarkia argitaratuz.
4. Jendaurrean erakutsi ondoren, alegaziorik ez balego, aurrekontu hau behin betiko onartutzat hartuko da beste onarpenik egin gabe.